

Prentsa-oharra

IK4-TEKNIKER zentroak mantentze-arloan egindako azken aurrerapenak aurkeztuko ditu Basque Industry 4.0 ekitaldian

- ▶▶ *Zentro teknologikoa IK4ren standean izango da, eta aktibo industrialak urrunetik monitorizatzeko plataforma adimendun bat erakutsiko du*
- ▶▶ *Ekitaldia asteazkena azaroaren 22an egingo da, Donostiako Kursaal Jauregian*
- ▶▶ *Zentroak sei proiektu berri hasi ditu duela gutxi 4.0 Industriaren hainbat esparrutan*

(Eibar, 2017ko azaroaren 22a).- Euskadiko [IK4-TEKNIKER](#) zentro teknologikoak industria-mantentzearen arloan egindako azken aurrerapenak erakutsiko ditu Basque Industry 4.0aren laugarren edizioan, asteazkena azaroaren 22an, Donostiako Kursaal Jauregian.

Zentro teknologikoak [Alianza IK4](#) elkarteko beste zentro batzuekin partekatuko du standa, eta ekitaldia baliatuko du SAM (*Smart Asset Management*) izenarekin garatu duen plataforma erakusteko. Aplikazioak informazioaren eta komunikazioaren azken teknologiak konbinatzen ditu, aktibo industrialak urrunetik monitorizatzen dituen soluzio adimendun bat eskaintzeko.

Zehazki, IK4-TEKNIKER zentroak erakutsiko duen plataformak aukera ematen du makina baten edo makina multzo baten egoerari buruzko informazioa hodeiaren bitartez biltzeko eta monitorizatzeko, eta erraz erabiltzen den interfaz batean aurkezten du informazioa.

Horretarako, tresnak funtzionalitate aurreratu batzuk baliatzen ditu; adibidez, *machine learning*ean eta adimen artifizialean oinarritutako algoritmo konplexuak, makinetatik *streaming*ean iristen den informazioa tratatzeko eta akatsak diagnostikatu eta aurreikusteko.

4.0ko sei proiektu berri

IK4-TEKNIKER *manufacturing*ean espezializatu da denbora luzez, eta gaur egun oso garrantzitsua da 4.0 industriarekin lotutako teknologia guztien esparruan.

Horren adierazle ditugu Basque Industry 4.0 programaren esparruan onartu diren sei proiektu berriak: industria-mantentzearen arloan hiru, monitorizazio eta robotika industrialaren arloan bi, eta ikuskapen eta neurketaren arloan bat.

Sei ekimenak hasierako fasean daude, eta guztira 1,5 milioi euroko aurrekontua izango dute, gutxi gorabehera. Era berean, ekimenak gauzatzeko, hainbat aktibo teknologiko lekualdatuko dira inguruko enpresatara.

Proiektuon esparruan garatutako ekipoak eta sistemak oso askotarikoak izango dira: besteak beste, robotika kolaboratzaileko teknologiek hornitutako fabrikazio autonomoko zelula berritzaile bat, edo neurketa- eta kontrol-sistema aurreratuak doitasun handiko makina-erreminten belaunaldi berri baterako.

Horrez gain, industria-mantentzearen esparruan garatutako proiektuek garrantzia berezia izango dute. Izan ere, lau ekimen bideratuko dira monitorizatzeko, operazio-analisirako, diagnostikorako eta makinetan akatsak aurreikusteko teknologia garatzera.

Horretarako, zentro teknologikoak mantentze prediktiboarekin lotutako aktibo teknologiko hauekin lan egingo du:

- “Fingerprint” metodologia teknologia sistemen osasun-egoeraren ezaugarriak zehazteko.
- Erabiltzen diren osagaien portaeraren ezagutzaren garapena saiakuntza-bankuen bitartez, besteak beste.
- Kostu-efizientziako mantentze-estrategiara (prediktiboa, prebentiboa, zuzentzailea) egokitutako sensorizatzean eta monitorizatzean oinarritutako “Condition Monitoring” sistemen garapena.
- Eta SAM plataforma, hodeian, akatsen diagnostikorako eta predikziorako datuak biltzeko eta aztertzeko.

Basque Industry 4.0, fabrikazio aurreratuaren etorkizuna

Eusko Jaurlaritzaren SPRI enpresa-garapenerako agentziak antolatzen duen Basque Industry 4.0 jardunaldiaren helburua da egungo industria-prozesuetan informazioaren eta komunikazioen teknologiak eta teknologia elektronikonak erabiltzeak duen eraginari buruzko hainbat ikuspegi biltzea.

Industria-sektoreko euskal enpresak elkartzeko ezinbesteko topaketa da jardunaldia, bai eta digitalizazioari buruz eztabaidatzeko gunea ere, tailerrak, erakusketak eta hitzaldiak hartuko dituen egitarauaren bidez. Bestetik, IKTak enpresa-ehunduraren jardueran arrakastaz ezarri diren kasuak era azalduko dira.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniarietan, produktu-ingeniarietan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | Tel. 637 273 728

////////////////////////////////////